



BARREN

TOKIKOM



Bola jokoan, maisu

Digital Manufacturing Unibertsitate Masterra

Murgildu zaitez industria 4.0n!

90ECTS. Eredu **DUALA**: jardunaldiaren %50a gutxienez lan kontratuarekin

Aurre-matrikula epea: 2019ko ekainak 12

Enpresekin elkarrizketa: 2019ko ekainaren 26tik aurrera

Hasiera: 2019ko iraila

Informazioa: ingeniaritza.ehu@imh.eus • 943 74 82 64 (Leire Alberdi) • www.imh.eus/unibertsitatemasterra

Ekainaren 3tik 14ra

Erosi euskaraz

GUREAN EUSKARAZ
ikurra duten establezimenduetan eta

10€ -ko erosketa txartelak
jasotzeko zozketan parte hartuko duzu



Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO LEHEN UNIBERTSITATEA
GOBIERNO VASCO
UNIBERTSITATEA
GOBIERNO VASCO

- AMAIA MENDIKUTE fruta denda • AMETSA kafetegia • ARAMBURU bitxi denda • ARAURI estetika • ARMUETA harategia • ASTIGARRAGA kirolak
- AZKUE argazkiak • CASTRILLEJO estanco • CRISTINA GARCIA estetika • ELENA ilepoindegia • FADEK ilepoindegia • G&M jantzi denda
- GABI jotetxea • GARATE jantzi denda • GARBINE estetika • GLORIA ohindegia • IBARRENEA ohindegia • IDAMA ilepoindegia • IKUS optika
- IPINTZA mangoak • IRIONDO kirolak • JAI-ALAI taberna • KALA lora denda • KLITZ jantzi denda • Moalako EROSKI • MARA oinetakoak
- MARIA URIZAR ilepoindegia • MARIAN fruta denda • MARRUBI fruta denda • MERAKI ilepoindegia • MOMA jantzi denda
- MURUAMENDIARAZ gazategia • N°1 en zapatillas • NALAI oinetakoak • PITXINTXU opari denda • SAHATZU harategia • SALENTO pizzeria
- SARA fruta denda • SARA jantzi denda • SURYA belar denda • TANTAKA taberna • TXILLARRE eho denda • UZURI optika • ZIARDA harategia



HARRI & IRRI

Taupada, 40 urte Elgoibar koloreztatzen



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Elgoibarren Kulturaren Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UROLA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDARO
2001

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► HERRIA ENTZUN...

Mendaron jaio, hazi eta bizi naiz. Mendaroko parte sentitzen naiz, atsegin dut Mendaro, sinisten dut herrian, eta ahal dudan neurrian, Mendaroren alde egiten saiatzen naiz.

Joan den igandean, Mendaroren alde eman nuen botoa, eta herritarrok hartu genuen erabakia.

Antza denez, baina, herriaren esana ez da kontuan hartuko, ez Mendaron eta ez beste hainbat lekutan ere.

Mendaroko jendea, Mendaroko txoak, Mendaroren nortasuna... Ezagutzen ez duen pertsona batek du orain Mendaroren etorkizuna erabakitzeko "giltza". Ez dadila bere lehen zeregina izan herriak erabaki duenari uko egitea.

Ziurrenik alkatetza lortuko duen alderdiaz pentsatzen jarri naiz, zer abiapuntu-

rekin jarriko duten martxan legealdi berria: herriaren nahia ez errespetatzea, herriaren ginetik boterea lehenestea.

Mendarok hitz egin du; orain, espero dut ordezkariak Mendaroren esana entzutea.

R.A.A.

► DEBABARRENAKO V. RAID-A

Morkaiko Mendizale Elkarteko Raid taldearen izenean, eskerrak eman nahi dizuegu Debabarrenako V.Raid-a antolatzen lagundu diguzuen guztioi:

Debako Udala, Debako kiroldegia, Elgoibarko Udal Patronatua, Danobat, Alcorta, Beristain, Itxaspe kanpina, Iriondo Kirolak, Astigaraga, Ciclos Turbina, Pitxitxu, Txarriduna, Mauxitxa gaztak, Ainhoa Fisioterapia, Eroski eta Gurutze Gorria.

Eskerrak, antolaketan lagundu digu-

zuen Josu Merino, Anex Retana, Patxi Marquez, Koldo Soraluze, Asier Arizaga, Jose Luis Garaizabal, Aritz Larrañaga, Imanol Larrañaga, Maite Ordax, Aitor Azkue, Evaristo Rodriguez eta aipatu gabe geratu diren gainerako boluntarioei.

Eskertza berezia, parte hartzaileek igaro dituzten lur sail eta baserrien jabeei. Eskerrik asko, raid familiarrean parte hartu duzuen familietako gurasoei, etxeko txikienean artean mendizaletasuna sustatzeagaitik. Datorren urtean ere raid-ak bi formatuetan antolatzeko gogo eta indarrak ez zaigu falta. Oraindik ez dakigu Debatik zein herritara mugituko garen, baina gure bailarako txoko ederretaz gozatzen jarraituko dugu. Eskerrik asko parte-hartzaile guztioi, eta hurrengo urtera arte!

Debabarrenako Raid-eko antolatzaileak



LAGUNAK
colchonera textil hogar

Bisita gaitzazu!

ALTZARI BILDUMA BERRIA!
Aukera zabala

- Neurriera egindako altzariak
- Gazte-logelak
- Logelak
- Zure gustora diseinatutako kanapeak, alboko kaxoiekin, oinetakoentzako txokoarekin.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

txikitasunetik handi

Landa eta itsasertz garapena





Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



Ainhoa Etxeberria eta Amaia Lasagabaster.

Gurean Euskaraz: ostalaritzan eta merkataritzan euskaraz

Elgoibarko Izarrak 'Gurean Euskaraz' kanpaina jarri du martxan Elgoibarko Udalarekin elkarlanean, herriko ostalaritzan eta merkataritzan euskara sustatzeko. Bi helburu ditu kanpainak: batetik, euskaraz egiteko gai diren ostalari eta merkatariek ikusaraztea, eta, bestetik, bezeroak euskaraz egitera motibatzea. 44 establezimenduk eman dute izena egitasmo honetan; 112 lagunek guztira. 37 Ahobizi izango dira eta 75, Belarriprest.

-AINHOA ANDONEGI -

AMAIA LASAGABASTER
Gurean Baiko koordinatzailea



● Zertan datza Gurean Euskaraz egitasmoa?

Ostalaritzan eta merkataritzan euskara sustatzeko kanpaina da. Alde batetik, euskaraz hitz egiteko gai diren ostalari eta merkatariek ikusaraziko ditugu. Establezimenduan Gurean Euskaraz txartela jarriko dute ikusgai, eta modu horretan bezeroak jakingo du establezimendu horretan euskaraz egin dezaketela. Horrez gain, ostalari edo merkatariek bakoitzak erabakitzen duen rolaren arabera, Ahobizi edo Belarriprest txartela jantziko du. Ahobiziek euskaraz egingo du, bezeroak ulertzen ez duela konturatu arte. Belarriprest txartelak, aldiz, berari euskaraz egin ahal zaiola erakusten du, nahiz eta kasu batzuetan, berak ez duen euskaraz erantzungo.

● Zer egingo duzue bezeroak euskaraz egitera bultzatzeko?

Ekainaren 3tik 14ra bitartean kanpaina berezi bat egingo dugu. Egun horietan, Gurean Euskaraz ikurra duten establezimenduetan euskaraz egiten duten bezeroei 10 euroko 30 erosketa txartelen zozketarako zenbakiak banatuko zaizkie.

● 44 establezimendu, 112 lagun. Pozik zaudete parte-hartzearekin?

Bai, zenbaki onak dira, eta pozik gaude parte-hartzaile kopuruarekin. 44k eman dute izena. Ostalari eta merkatariek bakoitzak aukeratu du Ahobizi edo Belarriprest izan nahi duen, eta 37 lagunek Ahobizi izatea aukeratu dute, horrek eskatzen duen konpromisoarekin. Azken batean, beraiek saltzeko daude, eta bezeroak gaztelaniaz egiten dienean ez zaie erraza egiten euskarari eustea. Ahalegin hori eskertzekoa da.

AINHOA ETXEBERRIA
Surya belar dendakoa



● Zergatik erabaki duzu Gurean Euskaraz egitasmoan parte hartzea?

Euskara garrantzitsua iruditzen zaidalako eta euskarari bultzada eman behar diogulako. Baita ere jendeak jakin dezan gure dendan ere euskaraz egiteko aukera duela, nahiz eta nire ama euskalduna ez izan. Jende askok uste du nire ama erdalduna delako ezin duela gure dendan euskaraz hitz egin, eta ideia hori aldatu nahi dut. Nire amak ez dauka euskara ulertzeko arazorik. Hitz egin gutxi egiten du, batzuekin bai, baina beste batzuekin ez da ausartzen; lotsa ematen dio. Baina bezeroek euskaraz hitz egin dezakete berarekin, nahiz eta gero berak gaztelaniaz erantzun. Euskaldunek euskaraz erosteko aukera daukate gure dendan.

● Nola moldatzen zara eguneroko lanean euskaraz egiteko?

Oso ondo. Euskaldunek lehenengo hitza euskaraz egiten dute. Egia da Elgoibarren erdaldun asko dagoela, eta horiek erdaraz egin dute, baina euskaraz dakienak gure dendan behintzat, euskaraz egiten du.

● Denda espezializatua da zurea. Nola moldatzen zara terminologia espezializatu horrekin euskaraz?

Hitz teknikoak gaztelaniaz erabiltzen ditugu, bai guk eta baita bezeroek ere. Terminologia hori gaztelaniaz ezagutzen dugu, eta horrela erabiltzeko ohitura daukagu. Gero azalpenak euskaraz ematen dizkiet, baina produktuen izenak eta hitz teknikoak, gaztelaniaz.

Ekaina erdialderako prest egongo da Mintxetako ur parke berria



Hasi dituzte Mintxetako ur parkea egiteko obrak, eta ondo bidean, ekaina erdialderako prest egongo da jolasgune berria. Ekainaren 15ean irekiko dituzte igerilekuak, eta ordurako ur parkea martxan egotea espero dute arduradunek. Udalak 200.000 euro inguru erabiliko ditu obra hau egiteko. Mintxetako igerilekuko atzeko partean kokatuko da, mahaiak eta parkea dauden inguruan. 250 koadroko espazioa hartuko du, eta 25 bat joko desberdinez osatuta egongo da. Ur parkera sartzeko baldintzak igerilekuetara sartzeko berberak izango dira.

Gaur bukatuko da Ludotekako Aste Nagusia



Festa giroa izan dute aste honetan Elgoibarko ludotekan. Aste Nagusiaren hamargarren edizioa hasi zuten joan zen barixakuan, eta gaur amaituko dute, Kirolari Egunarekin. Haur eta familien arteko futbolin txapelketa jokatuko dute, eta eguna ondo amaitzeko mokadu bat jateko aukera izango dute partaideek ludotekan bertan. Asteaz zehar, bestalde, zirkua eguna, artista eguna eta top xef saioak egin dituzte, besteak beste.

Segurtasunari buruzko tailerra jubilatuentzat

Jubilatuaren Biltokiak eta Eusko Jaurlaritzako Trafiko zuzendaritzak *Pausoz pauso, seguru* izeneko solasaldia antolatu dute ekainaren 5erako. 64 urtetik gorakoentzat izango da, doan, eta partaideek kanpainako opari bat jasoko dute. Istripuak sahiesteko segurtasun neurriak ikasiko dituzte, besteak beste. 17:00etan hasiko da.

Diruzain lanpostua atera du lehiaketara Elgoibarko Udalak

Diruzain bitarteko funtzionario lanpostu bat betetzeko oinarriak onartu ditu Elgoibarko Udalak, eta hilaren 22an argitaratu zituen Gipuzkoako Boletín Ofizialean. Lanpostu berria da, eta deialdi librekoa. Ez da Udaleko langileentzako barne promozioa, eta edonork dauka aurkezteko aukera. Interesatuak ekainaren 5era arteko epea dute. Ondorengo lekuetan eskuratu daitezke eskaera orriak: Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana, 2), Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan aurreikusitako leku guztietan, Correosen bulegoetan, eta Elgoibarko Udalaren Erregistro Nagusian, Udalaren egoitza elektronikoen bidez: www.elgoibar.eus. Informazio gehiagorako: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2019/05/22/c1903260.pdf>

Elgoibarko zuhaitzak ezagutzeko irteera, ekainaren 8an

Elgoibarko herrigunean dauden zuhaitzak ezagutzeko irteera antolatu du Morkaikok, ekainaren 8rako. Herriko zuhaitzei buruzko liburua idatzi duen Andoni Segundo izango da gidaria, eta besteak beste, zuhaitzak identifikatzen ikasi eta bakoitzaren ezaugarriak ezagutuko dituzte. Kultur Etxean elkartzeko 9:30ean, eta hiru bat orduko ibilaldia egingo dute herrigunean. Interesatuak morkaiko@morkaiko-eus helbide elektronikora idatzita edo 636 994 798 telefono zenbakira deituta eman behar dute izena.



Astelehenetik aurrera jaso daitezke Koplaldia eserita ikusteko gonbidapenak

Ekainaren 7an, ostiralean, izango da Elgoibarko I. Koplaldia, San Bartolome parrokiaren atzean dagoen bolatokian, 21:30ean hasita. Elgoibarko Izarrak antolatu du jaialdia, Elgoibarko Udalaren eta Danobat Kooperatibaren laguntzarekin. Jaialdia doan izango da, baina koplaldia eserita ikusi nahi duenak, astelehenetik aurrera izango du gonbidapena jasotzeko aukera. Elgoibarko Izarrak Ubitarten duen bulegoan eskatu daitezke (9:00-14:00 / 16:00 – 18:30), 943 741 626 telefonora deituta edo elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzita.

Bertsolariak eta koplak izango dira protagonista nagusiak, baina musikarien parte-hartzea ere garrantzitsua izango da. Hauek arituko dira koplatan: Eli Pagola, Aitor Mendiluze, Onintza Enbeita, Miren Artetxe, Mainer Arregi, Manex Agirre, Andoni Egaña, Odei Barroso, Aitor Bizkarra eta Uxue Alberdi. Musikaz, berriz, beste hauek arduratuko dira: Sinuöse Kultur Elkarteko Ander Mujika, Iban Urizar, Jon Gurrutxaga eta Patxi Zabaleta. Koplaldiko irabazleak Aitor Etxeberria artista mendaroarrak Elgoibarko I. Kopladirako propio sortu duen eskultura jasoko du.



Denetarikoz zaborrak atera zituzten zapatuan Deba ibaitik, Mendaron



Erreka garbitzera joateko deia egin zuten Mendaroko Udalak, Gaztelekuak, Ludotekak eta Gazte Asanbladak zapaturako, eta jende askok hartu zuen parte ekimenean. Denetarikoz zaborrak atera zituzten ibaitik, eta gero, Gaztetxean batu ziren denak bazkaltzeko. Arratsaldean musika, umeentzako jolasak eta eskulanak egin zituzten. Giro onean pasatu zuten eguna.

Inklusioaren aldeko jaia antolatu dute biharko

Salento tabernak inklusioaren aldeko jaia antolatu du biharko, aniztasun funtzionala duten pertsonen laguntzeko. Orain dela lau bat urte hasi zen Aspaceko kideentzako bazkaria antolatzen, eta aurten ere halaxe egingo du. Eguerdian, pizza eta freskagarria eskainiko die aniztasun funtzionala duten lagunei, doan. Aurten, baina, beste pauso bat eman nahi izan du inklusioaren alde, eta bazkariak gain, kontzertua ere antolatu du, nahi dutenentzat. Gazte Asanbladarekin elkarlanean, Gaztetxean izango da emanaldia. Mugi Panderoa, J.M. Atlantida eta The Crockets (Beatles taldearen tributoa) taldeek emango dute kontzertua, 21:30etik aurrera. Kontzertutik lortzen den diruaren zati bat Elgoibarko Nuala elkarteari emango diote antolatzaileek. Nuala elkarteak 2017an sortu zen. Aniztasun funtzionala duten umeen guraso eta lagunek osatzen dute taldea, eta inklusioaren alde lan egiten dute.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldia gaur, Mendaron

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Mendaron izango dira gaur. *Musua* du izena ikuskizunak eta zabalduko duten mezua honakoa da: Eguzkiak ez ezik, musuek ere jartzen dutela mundua biraka, gu geu biraka jartzen gaituzten hein berean. Mendaroko ikastolako patioan izango da saioa, 18:30etik aurrera. Sarrerak 7 euro balio ditu (kapotadun aukerak doazen umeek ez dute ordaindu beharrik izango). Sarrerak ikastolan bertan eskuratzeko aukera egongo da.


EAJk irabazi du Elgoibarren, baina gehiengo osoa galdu du, eta EHBildu gailendu da Mendaron, baina EAJrekin berdinduta zinegotzitan

ELGOIBAR

EAJk irabazi du Elgoibarren, EHBilduk zazpigarren zinegotzia lortu du, Elkarrekin-Podemos sartu da Udalean eta PSE-EEK dauka giltza



8



7

1

1

Bototan nagusi izan arren, gehiengo osoa galdu du EAJk Elgoibarren. 2.629 boto eskuratu ditu, duela lau urteko Udal Hauteskundeetan baino 168 boto gutxiago, eta zinegotzi bat galdu du: bederatzi zituen, eta zortzi eskuratu ditu. EHBildu izan zen domekan bigarren alderdi bozkatuena, 2.065 botorekin. EHBilduk gora egin du bototan, 2015ean baino 356 boto gehiago eskuratuta, eta horrek zazpigarren zi-

negotzia eman dio. Kontrara, PSE-EEK 114 boto galdu ditu, eta zinegotzi bakarrarekin gelditu da, beste bat galduta. Elkarrekin-Podemosek eman du berria. Estrainekoz aurkeztu du zerrenda Udalerako, eta botoen %5,86rekin, zinegotzi bat eskuratu du.

Emaitza hauek zabalik utzi dute negoziatorako bidea. Emaitzak jakin berrikan, Evaristo Rodriguez Elkarrekin-Podemosko zerrendaburuak argi utzi zuen ezkerrekoekin batuta alda-

ELGOIBARKO DATUAK:

- Hautesle-errola: 8.676
- Emandako botoak: 5.880 (%67,54)
3,97 igo da duela lau urtekoetatik.
- Zuriak: 58
- Baliogabeak: 47
- Abstentzioa: %32,46

EMAITZAK:

- EAJ: 2.629
- EHBildu: 2.065
- PSE-EE: 560
- Elkarrekin-Podemos: 342
- PP: 179





ketaren alde egingo zutela, eta modu horretan, alkatetzarako EHBildu babestuko dutela iradoki zuen: "Ezkerreko alderdiak batuz gero, Elgoibarren gauzak aldatu ditzakegu, eta hori gauza handia da. Aldaketen ordua da, eta gu aldaketa ematearen alde agertuko gara". Hori horrela izanda, PSE-EErengan jarrita daude begiak, Fernando Suarezren botoak erabakiko lukeelako Elgoibarren norik agindu, EHBilduk lortutako zazpi zinegotziei Elkarrekin Podemosena batuta zortzi direlako, EAJk lortu dituen beste alegia. Ikusteko dago, beraz, zer gertatuko

den, oso litekeena delako Batzar Nagusietarako joerak markatzea Elgoibarren zeinek aginduko duen datozen lau urteetan, Suarezek berak domeka gauean aurreratu zuen bezala: "Alderdi guztiekin hitz egiteko prest nago, irekita nago eta ikusi beharko da bakoitzak zer eskaintzen duen. Batzar Nagusietan hartzen diren erabakiak aztertu beharko dira, eta horren arabera jokatu herrietan". Ekainaren 15ean osatuko dute udal gobernu, eta orduan erabakiko dute Elgoibarren zein izango den alkatea.

MENDARO

Hauteskundeak irabazi arren, zinegotzitan EAJrekin berdinduta dago EHBildu, eta alkatetza ken diezaiokete EAJk eta PSE-EEK, batuta



EHBilduk irabazi ditu Udal Hauteskundeak Mendaron. 451 boto eskuratu ditu, EAJk baino 39 gehiago, baina gehiengo osoa galdu du, eta zinegotzitan, berdinduta daude bi alderdiak. Bototan biek egin dute gora 2015eko Udal Hauteskundeekin alderatuta, eta bosna zinegotzi lortu dituzte. PSE-EEK lortu du hamaikagarren zinegotzia, 92 botorekin. 2.000 biztanleko langa gaingituta, 11 zinegotzi-kargu zeuden jokoan, bederatzik beharrean, eta horrek ere eragina izan du, alderdi konstituzionalistaren mesedetan. Eserlekua lortuta, Mari Jose Telleriak izan dezake beraz giltza alkatea izendatzeko orduan. Domekan, aukera horri buruz galdetuta, Telleriak esan zuen "elkarrekin lan

egitea" dagokiela orain denei eta Iñaki Arregi EAJko zerrendaburuak ere ildo beretik hitz egin zuen, negoziazioen atea zabalik utzita. "Ez dugu aukera horren inguruan ezer hitz egin, baina orain batu eta denon artean aztertu beharko dugu zer egin", adierazi zuen. Enetz Ezenarro EHBilduko alkategaiak balorazio positiboa egin zuen emaitzak jakin bezain laster, besteak beste Espainiako Kongresuko hauteskundeetan izandako emaitzak iraultzea lortu dutelako Udalerako hauteskundeetan. EHBilduk alkatetzari eusteko aukeraz honakoa esan zuen: "Pentsatzen dugu Mendaroko alkatetza ere guri dagokigula, alderdi bozkatuena geurea izanda".



MENDAROKO DATUAK:


- Hautesle-errola: 1.415
- Emandako botoak: 988 (%69,83)
7,21 puntu egin du gora duela lau urtekoetatik.
- Zuriak: 19
- Baliogabeak: 14
- Abstentzia: %30,17

EMAITZAK:

- EHBildu: 451
- EAJ: 412
- PSE-EE: 92

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

Gipuzkoako joera orokorra bete da Elgoibarren eta Mendaron ere, eta EAJk lortu du boto gehien bietan



BATZAR NAGUSIEN OSAERA

Emandako botoak: 370.616
 Abstentzioa: 185.364 (%33,34)
 Zuriak: 3.208 (%0,87)
 Boto baliogabeak: 3.115 (%0,84)

EMAITZAK: 51 BATZARKIDE GUZTIRA

- EAJ: 20 batzarkide (↑ 2). Botoen %35,59
- EHBildu: 17 (=). Botoen %31,61
- PSE-EE: 9 (=). Botoen %17,10
- Podemos-Ahal dugu: 4 (↓ 2). Botoen %8,94
- PP: 1 (=). Botoen %4,70
- Ciudadanos: 0 (-). Botoen %1,00
- EB: 0 (-). Botoen %8,87

Udal Hauteskundeetako joera bera errepikatu da Elgoibarren Batzar Nagusietarako hauteskundeetan. EAJk batu ditu boto gehien, 2.631 guztira, bigarren alderdi bozkatuena izan den EHBilduk baino 818 boto gehiago alegia. 2015eko hauteskundeekin alderatuta, alderdi abertzale biek egin dute gora bototan (parte-hartzea %67,46koa izan da, 2015ean baino 3,86 puntu altuagoa). Gora egin du PSE-EEK ere, hirugarren alderdi bozkatuenak. 710 boto eskuratu ditu alderdi sozialistak, botoen %12,23 alegia. Kontrara, bai Elkarrekin-Podemos eta bai PPK ere behera egin dute, duela lau urteko emaitzekin alderatuz gero.

Mendaron, ohi legez, EAJk batu ditu boto gehien Batzar Nagusietarako: 447 (%45,84). Gora egin du bototan EAJk, bai eta EHBilduk ere, duela lau urteko emaitzekin alderatuta (Parte-hartzea %69,52koa izan da, 2015ean baino ia 7 puntu altua-

goa). Koalizio abertzaleak 329 boto batu ditu (%33,74). PSE-EE izan da hirugarren indarra. Podemos-Ahal Dugu eta PP izan dira hurrengo bi alderdi bozkatuenak, baina biek ere atzera egin dute.

Bi herriotako joera orokorra izan da Gipuzkoan. EAJk lortu du boto gehien, eta hogeitazko ordezkaritza izango ditu Batzar Nagusietan, orain arte baino bi gehiago. EH Bilduk hamazazpi ordezkaritza eskuratu ditu, eta PSE-EEK, bederatzi (Mari Jose Telleria izango da bat). Ahal Dugu-k atzera egin du, eta bi kide gutxiago izango ditu (4). PPK, berriz, bakarrari eutsi dio. Beraz, emaitza horrekin, EAJ-PSE gobernu koalizioak gehiago argia du Gipuzkoan: 26 ordezkaritza behar dira gehiago absolutua izateko, eta 29 ordezkaritza dituzte bien artean. Beraz, Markel Olanok jarraituko du ahaldun nagusi.



EUROPAKO PARLAMENTUA

EAJ izan da alderdi bozkatuena Elgoibarren eta Mendaron ere, eta EHBildu izan da bigarren indarra



EAJk irabazi ditu Europako hauteskundeak Araban, Bizkaian, eta Gipuzkoan, eta horixe gertatu da Elgoibarren eta Mendaron ere. Elgoibarren, 5.824 boto eman dira guztira (%66,89koa izan da parte-hartzea), eta EAJk batu ditu boto gehien. 2.348 boto eskuratu dituzte jeltzaleek (%40,72) eta 1.693 batu ditu EHBildu koalizioak (%29,36). Udalerako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan gertatu bezala, Europarakoetan ere PSOE izan da Elgoibarren hirugarren alderdi bozkatuena, 843 botorekin (%14,62). Mendaron, EAJk jaso ditu boto gehien Europarako parlamenturako, 418, eta 129 botoko aldea kendu dio EHBilduri, bigarren indarrari. PSOE izan da hirugarren alderdi bozkatuena, 125 botorekin, eta Podemos, PP eta Ciudadanos atzetik dituela. Podemosek 90 boto batu ditu, eta 22, PPK, Espainiako Kongresurako batu zituenak baino zortzi gutxiago.

Emaiza orokorreari begirata esan behar da bai EAJk eta bai EHBilduk europarlamentari bana izango dutela Europako Parlamentuan. Kataluniako Convergenciaren sektorearekin batera aurkeztu ordez, Coalicion Canaria eta

Compromiso por Galiciarekin batera osatu du hautagaitza EAJk (Europa Solidarioaren Aldeko Koalizioa), eta guztira, 379.393 boto jaso ditu. Beraz, Izaskun Bilbao kargua berrituko du. EHBildu, berriz, ERCrekin eta BNGrekin batera aurkeztu da, Orain Errepublikak koalizioan, eta hiru eserleku lortu dituzte. EHBilduk ere europarlamentaria izango du hortaz: Fernando Barrena.

PSE-EEK ere hiru europarlamentari izango ditu, eta Podemos, Ciudadanos eta PPK, bana.

ELGOIBAR

Emandako botoak: 5.824 (%66,89)
Abstentzioa: 2.883
Zuriak: 35
Baliogabeak: 59

EMAITZAK

EAJ: 2.348 (%40,72)
EHBildu: 1.693 (%29,36)
PSOE: 843 (%14,62)
Podemos: 460 (%7,97)
PP: 169 (%2,93)
Ciudadanos: 98 (%1,69)
Pacma: 39 (%0,67)
Junts per Catalunya: 18 (%0,31)
VOX: 15 (%0,26)

MENDARO

Emandako botoak: 972 (%68,70)
Abstentzioa: 443
Zuriak: 2
Baliogabeak: 8

EMAITZAK

EAJ: 418 (%43,36)
Bildu: 289 (%29,97)
PSOE: 125 (%12,96)
Podemos: 90 (%9,33)
PP: 22 (%2,28)
Ciudadanos: 9 (%0,93)
Pacma: 8 (%0,82)
VOX: 1 (%0,10)



“Nire aurreneko gaupasa bolatokian egin nuen, 13-14 bat urterekin”

- ANGEL IBARLUZEA -



Hiru Txirlo bola-jokoaren epizentrotan da Aia, eta San Migel taldeko bolariak inguruko bolatoki guztietara hedatzen den lurrikara. Kirol zahar honetako dominatzaile nagusiak dira bolari elgoibartarrak; Euskadiko eta Gipuzkoako kontu ezin beste txapelketa irabazi dituzte bakarka, bikoteka zein taldeka. Angel Ibarluzea eta Xabier Loiola lehenenguek irabazi berri dituzte azken txapelak. Gipuzkoako 50. hiru txirlo bola-joko txapelketa irabazi dute bikoteka, eta Ibarluzeak bosgarrengoz irabazi du bakarkako titulua. Bera da gainera egungo Euskadiko txapelduna. Zein hoberik bola jokoaz berba egiteko. Gainera, Angel Ibarluzea izan da Hiru Txirlo modalitateko arduraduna hamabost urtean, Gipuzkoako Bolo eta Toka Federazioan.

- ASIER ORBEA -

► Angel Ibarluzea eta Xabier Loiola BOLARIAK

♦ "11k 11ren aurka jokatu eta beti Alemaniak irabazten duen kirola da futbola", esan zuen Gary Lineker futbol jokalaririk in-gelesak. Bola jokora ere ekar daiteke esaldi hura, azken zatia aldatuta: "Beti San Migel taldeko bolariren batek irabazten duen kirola da bolo joko".

Xabier: Beti zaila da, baina normalean puntan ibiltzen gara.

Angel: Egia da azken urteetan txapel asko etorri direla Aia-ara. Eta, gainera, ez dira buru bakarrera joan. Hori bai, komeni da argitzea San Migel taldearen barruan ez gaudela aia-arrak ba-

karrik, Idorbe, San Roke edo Arriagako bolariak ere badauzkagu-eta taldean. Elgoibar ordezkatzeko duen taldea da San Migel, horixe da federatuta daukagun taldearen izena. 21 lagun gaude federatuta.

♦ Euskadiko eta Gipuzkoako zenbat txapel irabazi dituzue zuek biok? Eta bolari elgoibartarrak?

A: Federazioan arduratzen hartu nuen urtetik aurrerako datuak bakarrik dauzkatzeko, 2002tik honakoak. Aurtengoarekin bost alditan irabazi dut Gipuzkoako txapelketa eta lau bider Euskadikoa. Xabierrek



Imanol Osoro, Eduardo Arrona, Julen Ibarluzea, Angel Ibarluzea, Jose Irusta, Javier Osoro, Xabier Loiola, Iñigo Loiola, Unai Loiola eta Iker Izagirre Idortorbeko bolatokian.

bitan irabazi ditu txapelketok, bata zein bestea. Bikoteka zazpi aldiz izan gara Gipuzkoako txapelkunak, eta zortzitan, Euskadikoak. Eta taldeka, 2002tik gaur arte San Migelek hamar bider irabazi du Gipuzkoako txapela, eta zazpitan, Euskadikoa.

X: Gutaz aparte, Jabier Osorok Gipuzkoako bi txapel eta Euskadiko hiru irabazi ditu. Unai Loiolak Euskadiko bat eta Gipuzkoako bat, eta nire aitak (Julian Loiola) ere irabazi zuen Gipuzkoako txapel bat. Imanol Osorok Gipuzkoako bi txapel ditu, eta Jose Irustak, bat. 50 alditan jokatu da Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa eta azken urteetan 14 txapel lortu dituzte Elgoibarko bolariak. Eta handiagoa izan da nagusitasuna Euskadikoan, jokatu diren 29 ekitaldietatik dozena bat irabazi dituztelako San Migel taldeko bolariak. Gureez aparte Javier Osorok (3), Unai Loiolak (1), Jose Irustak (1) eta Agustin Irustak (1) irabazi dute. Eta hori, San Migel taldea 80. hamarkada amaieran hasi zela txapelketetan parte hartzen. Hemengo bolariak Elgetako edo Eibarko taldearekin hartzen zuten parte taldea sortu aurreko urteetan.

♦ Agerikoa da bolari elgoibartarren nagusitasuna. Non dago sekretua, baldin badago?

A: Eragina izango du boloetako zentroa hemen egoteak: Osintxu, Soraluze, Eibar, Bergara, Elgoibar... inguru honetan egon da boloetarako tradizioa. Boloetako elkarte bakarra Eibarren dago: Asola Berri. Hiru txirlo modalitatea herri horietatik zabaldu da ingurukoetara. Gerora eraiki zituzten Azpeiti, Azkoiti edo Lasturko

“Bolatokiak daukan zailtasuna gainditzea da boletia”

- XABIER LOIOLA -

bolatokiak, esaterako.

X: Elgoibarren Aiastia eta Idortorbe dira auzorik bolazaleenak, bietan mantendu da bizirik bola-jokoa.

A: Gure amamak hemen (Aiastian) taberna zuen, eta haren aurrean bolatokia eduki zuten aitak eta osabak, bost bat urtean. Aitak beti esaten zuen, erromeria egunetan ehundik gora lagun batzen zirela tiraldi normal batean. Sekulako giroa sortzen zen, eta ordutik datorkigu guri zaletasuna, umetatik. Nire aurreneko gaupasa bolatokian egin nuen, 13 edo 14 bat urterekin. Goizaldeko zazpiretan heldu nintzen etxera, aitak txuleta ipini, hura jan eta ohera. Ajerik gabe eta poltsikoak beteta. Bolak bueltatzen ibiltzen ginen hau (Xabier) eta ni. Auskalo zenbat bola bueltatuko genituen; eta ez da ikasten hasteko modu txarra. Ohitura egoten zen gu moduko gazteak *baratero* jartzeko auzoko jaietako tiraldietan. 100 pezetako tiraldia baldin bazen, bost pezeta ematen zizkigun irabazleak. 1.000 pezetako tiraldiak ere egoten ziren goizaldeko bostetan. Diru horrekin sartzen ginen gu jokoa, eta tarteka-tarteka irabazten genuen jokoren bat. Hala bazen, pozik, eta ateratzen ez baldin bagenuen, *baratero* jarri behar diru pixka bat batzeko...

X: Huraxe gustatzen zitzaigun. Gure saltsan geunden. Orain esaten diezu umei bolak bueltatzen jartzeko eta *nanai*, ez direla hor jarriko, aspertu egiten direla. Ume eta gazte denboretan izugarria zen bolatokietako giroa, apustuak, pikeak, zarata... ordu txikiak arte luzatzen ziren.

A: Nik ikusi dudana apusturik handiena, lagun batek zazpi laguni botatokia izan zen, Elorrión. Bola bat eskuan zeukala, zazpi mila duro jokatu zizkion bakoitzari: Txirlo bat bota baietz. Justu-justu, baina jo zuen bat. 35.000 pezeta irabazi zituen. Garai haiek joan dira.

♦ Futbolearen jokotutakoak zarete biok. Futbola lagatukoan hasi al zineten bolo txapelketetan?

A: Bola jokoa umetatik egin dugun arren, txapelketan bota nuen lehenengo aldia 1989an izan zela uste dut, 22 bat urte nituen. Xabier eta biok elkarrekin hasi ginela uste dut. Futbola eta bola jokoa (boletia) ezin uztartuta ibili ginen urte batzuetan, eta boletia laga behar izan genuen. Futbolearen ibili izan ez bagina, boletian lehenago hasiko ginen, seguru.

♦ Bata bestearengandik ezberdinak dira oso bolatokiak. Igarriko duzue alde, ezta?

X: Bolatoki bakoitza mundu bat da. Gainera, urtean behin edo bitan aritzen gara batzuetan. Txapelketetan, gutxienez, bola berdinarekin jokatzen dugu bolatoki guztietan.

♦ Zein duzue bolatoki gogokoena?

X: Ez da zaila asmatzea, ezta? Aiastiakoa, dudarik gabe. Idortorbekoa ere gustukoa da, baina honek beste xarma bat dauka, motzagoa da, dotoreagoa... goxoagoa boletarako. Hementxe

“Aiasiako bolatokiak beste xarma bat dauka: motzagoa da, dotoreagoa... goxoagoa boletarako”

- XABIER LOIOLA -

ibiltzen gara gusturuen, eta aurkariak ere badakite, noski.

A: Lehen gogoko bolatoki gehiago genituen, baina horietako asko makaltzen ari dira. Bolatokiak berezitasunen bat eduki behar du. Estreinakoz dabilenak txirloak jotzen dituen bolatokia ez zaigu gustatzen bolarioi, guri behintzat ez. Bolatoki bakoitzeko berezitasun eta zailtasunetara moldatzen ez zekienak ez zuen txirlorik jotzen lehen. Bolatoki batzuek koskorra edo kurbatxoa izaten dute, bolak goitik behera, edo alderantziz, atera behar dira beste batzuetan... halakoak ezagutzeko ordu asko sartu eta bolatoki asko pasatu behar dira.

X: Boletia horixe da. Bolatokiak daukan zailtasuna gaintzen asmatzea. Adibidez, Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia, Elgetakoa, 13 urteko mutiko batek irabazi du, eta hori ez litzateke normala izan behar. Sanmigeldarrantzat ez da normala.

♦ **Nolako bolariak zarete? Aipatu bata bestearen ezaugarriak.**

A: Nik honek beste indar ez daukat, eta zerbait egin behar dut bolarekin bera indarrez ailegatzeko den lekuetara ailegatzeko. Bolatokia nola dagoen igartzen izan naiteke ni trebexegoa. Gehiagotan aldatzen dut bola eskuan berak baino. Zuzenagoa da Xabier horretan. Daukan indarrarekin, behar denean indar hori apaltzea da berak daukan meritua. Beste ezeren gaintetik ehuneko ehuneko lehiakorrak gara gu biok, hori da gure ezaugarria. Eta txakur zaharrak garela. Une garrantzitsuetan gurea ematen dugu, eta badakigu nor jartzen den urduri eta nor ez.

X: Honek teknika handiagoa dauka. Bola eskuan hartzeko modua gehiagotan aldatzen du, moldatu egiten du lekuaren arabera: az-



pijana, gainjana... bestea. Nik, aldiz, eskua mugitu baino gehiago, gorputzaren postura aldatzen dut jaurtitzera. Bakoitzak bere estiloa dauka. Eta gero Unai (Loiola) modukoak daude, beste galaxia bateko bolariak. Hark txirloak jo beharrean pasa egiten ditu, indarraren indarrez.

♦ **50 urte bete ditu Gipuzkoako Hiru Txirlo bola joko txapelketak. Nola ikusten duzue zuen kirola?**

A: 2013. urte inguruan goia jota ibili ginen. Ehun bat lagunek hartzen zuten parte txapelketako firdietan. Beheraldia izan zuen ondorengo urteetan eta berriro indarra hartzen ari da orain. Bolari beterano asko egon da, 80 urtetik gorakoak ere badabilza, eta asko erretiratu dira bolatokitatik. Horiei erreleboa emateko gazte jendea erakarri behar dugu, geu ere beterano bihurtzen ari gara eta... Boletari ikusten diodan berezitasunetako bat hori da hori: adin guztietako lagunak gabiltzala. 13 urteko bat izan daiteke Gipuzkoako txapeldun, izan gizona zein emakumea. Halakorik ez dago beste kiroletan. Bestetik, bolatoki batzuk badute berritzeko premia, eta aldrebesena Aistian daukagu. Bolari gehienak gusturen hemen ibiltzen dira, baina itxuraz aldrebesena ere hauxe da. Teilatuak badu berritzeko premia.

♦ **Nolako izaten da firdietan egoten den giroa?**

X: Euskal giroa egoten da, erdaldunak ere badauden arren. Lagunarteko giroa izaten da nagusi eta taldean ibiltzen gara gu, zortzi bat lagunez osatutako boletarako koadrilarekin hara eta hona. Kirola baino gehiago da guretzat. Sarietarako ere kaja bakarra daukagu. Berdin dio saria zeinek atera duen, irabazitako dirua kajara doa.

♦ **Hiru txirlo munduan bada aldatuko zenuketen zerbait?**

A: Bola jokoa eskola kirolaren barruan sartu ez izana gelditu zaidan arantza. Gai hori behar moduan bultzatzeko astirik ez dut izan lanagatik. Eskola Kiroleko liburuan aipatzen da bola jokoa, eta umeek eskubidea dute beste kirol batzuk moduan bola jokoa aritzeko, egun batean bada ere. Elgoibarren lau bolatoki ditugu auzoetan (Idotorbe, Aistia, Azkue eta Sallobentzen). Eta horiez gainera, herri erdian ere badaukagu Bolatoki plaza, elizaren albo batean. Gauza bakarra falta zaio, ordea: izenean daraman bolatokia. Uste dut herriaren erdian egon behar duela bolatoki batek, eta toki ezin aproposagoa dela hori. Gure kirola ezagutzera emateko balioko luke, eta umeak zein nagusiagoak boloetara erakaritzeko ere bai. Hor botatzen diot proposamena Udalari.



Pablo Turrillas debarra da Haundiko entrenatzaile berria

Haundiko entrenatzaile berria aurkeztu zuen astelehenean C.D. Elgoibarrek. Pablo Turrillas Aranzetak (Deba, 1963) gidatuko du aurrerantzean talde zuri-gorria. Turrillas Haundiko jokalaria, zortzi bat urtean, eta entrenatzailea izana da. 2007-2008 denboraldian entrenatu



zuen Haundi, Hirugarren Mailan. Saillkapeneko 11. postuan bukatu ostean Arenas taldera joan zen, eta Jagoba Arrasatek hartu zuen Elgoibarko taldearen gidaritza hurrengo denboraldian. Hortaz, bigarren aroa hasiko du Turrillasek Mintxetan. Turrillasek aulkitxoan bi denboraldi osatu dituen Omar Aizpurren lekua hartuko du. Eskarmentu handiko entrenatzailea da debarra. 30 urte daramatza taldeak entrenatzen eta guztira 500 partidatik gora egin ditu 3. Mailan. Bermeo F.T. taldea izan da azkenena. Bigarren B Mailako taldeak ere entrenatu ditu.

Lehendakari Txapelketa eta Bolari Eguna, Aiaslian eta Idotorben

Gipuzkoako 50. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketako lehen 64 sailkatuek Lehendakari Txapelketa jokatu dute bihar, ekainak 1, Aiaslian bolatokian. 11:00etatik aurrera hasiko da kanporaketa eran jokatu den txapelketa. Lehen sailkatuak, Angel Ibarluzeak, 64. sailkatuaren aurka jokatuko du, bigarrenak 63. sailkatuaren aurka, eta



horrela finalera ailegatu arte. Bolari Eguna ere ospatuko dute eta hiru bolari omenduko dituzte aurten: Jesus Mari Azpiazu Txorti, Joxe Mari Azpiazu Santa eta Julian Loiola. Bolari guztiek elkarrekin bazkalduko dute gero Idotorben, eta bazkalostean banatuko dituzte txapelketetako irabazleentzako sariak eta omenduentzako oroigarriak. Eibarko Big Ion musika taldeak girotuko du bolarien eguna.



Joseba Etxeberriak entrenatuko du Bilbao Athletic

Joseba Etxeberria Lezamara itzuliko da, Bilbao Athletic entrenatzera. Elgoibartarrak bi denboraldirako kontratua sinatu du, hirugarren denboraldi bat luzatzeko aukerarekin. "Erantzukizun handiarekin" itzultzen dela esan zuen eguaztenean eman zuen prentsaurrekoan. Lehen taldearen nukleoa Lezaman dagoela azpimarratu zuen, eta bi helburu aipatu zituen: "Jokalariak lehen talderako prestatu eta taularen goiko aldean kokatzen saiatu". Etxeberriak Tenerife taldea entrenatu du denboraldi honetan, bosgarren jardunaldian kargutik kendu zuten arte.

Maialen Alonso judoka, Gipuzkoako txapelkun

Kimuen kategoriako Gipuzkoako judo txapelketa jokatu zuten, domekan, Legazpin, eta Maialen Alonso elgoibartarrak lortu zuen urrezko domina 57 kilo baino gehiagoko kategorian, alebinetan. Egokran judo kirol elkarteko judoka gazteak bigarren urtez jarraian irabazi du Gipuzkoako txapelketa.





Kirolaren balioez berbetan aritu ziren Vicente Del Bosque eta Jesus Mari Zamora martitzenean Herriko Antzokian

Vicente Del Bosque eta Jesus Mari Zamora futbol ibilbide luze eta arrakastatsuan ikusi eta ikasi dituzten balioez berbetan aritu ziren joan den martitzenean, Elgoibarko Herriko Antzokian. Elgoibar Europako Kirolaren Herria dela ospatzeko antolatutako egitarauaren barruan antolatu zuten so-lasaldia. Elgoibarrera ailegatu ostean, Realeko eta Real Madri-leko atezaina izan zen Jose Arakistain (Elgoibar, 1937) eta Jesus Mari Zamorarekin berbetan aritu zen Del Bosque, Txariduna Hotelean. Gero, Nuala elkarteko hainbat kiderekin elkartu zen Espainiako futbol selekzioko hautatzaile ohia. Zamorak eta Del Bosquek euren ibilbideez eta kirolaren baloreez berba egin zuten gero antzokian, besteak beste, lidergoa, porrota, frustatzioa, errespetua, umiltasuna, taldeen kudeaketa, entrenatzaileen lana... izan zituzten hizpide. Era berean, gaur egungo futbola eta futbolariak eta lehengoak alderatu zituzten. Azken zatian C.D. Elgoibarreko jokalarik gaztekoek egindako galderak ere erantzun zituzten. Informazio osoagoa barren.eus.



Leire Egaña irabazle Gipuzkoako ehiza ibilbidean

Ehiza Ibilbideen Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten maiatzaren 26an Oiartzungo Arkale tiro eremuan. Emakumezkoetan Leire Egaña elgoibartarra gailendu zen, 38 punturekin. Irati Lertxundi sailkatu zen bigarren postuan, 31 puntu lortuta eta Irati Perezek egin zuen hirugarren, 21 punturekin. Iaz Euskadiko txapelketa ere irabazi zuen Egañak modalitate honetan.



Zumba saio berezia egingo dute ekainaren 9an

Zumba saio berezia antolatu du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak ekainaren 9rako. Olaizaga kiroldegian egingo duten saioak (11:00) puntako irakasleak izango ditu: Darwin de la Cruz, Jhonson, Itziar, Rey, Induara eta Elena. Parte hartzeko txartelak salgai daude. 10 euro balio ditu nagusientzako sarrerek eta 5 euro umeenak. Honako telefono zenbakian eskuratu daitezke sarrera: 634 438 887.



Ia 200 lagunek hartu zuten parte Debabarrenako orientazio raidean



Deban jokatu zuten estreinakoz Debabarrenako raida, joan den zapatuan. Morkaikok antolatzen duen probaren bosgarren edizioa izan zen, eta 110 lagunek hartu zuten parte proba nagusian, eta 85 haur eta heldu lehiatu ziren raid familiarrean. Nagusiak zazpi orduan aritu ziren lehian, hainbat probatan. Debako kaleetan egin zuten orientazio proba batekin hasi zuten raida. Gero, antolatzaileek hondartzan prestatu zituzten hainbat joko gaingitu behar izan zituzten lehiakideek, mendi bizikletako proba hasi aurretik. Itziar, Arbil, Lastur eta Andutz inguruetan egin zuten BTT proba. Eskalada proba bat egin zuten gero Lasturren, eta espeleologiakoa, Ugarteberriko koban. Bi proba berezi horien ostean, bi trekking egin zituzten. Lehena Andutz inguruan egin zuten, 8 kilometroko ibilbidean eta 625 metroko desnibelduna; eta, bestea Itxaspe-Sakoneta inguruan, Euskal Kostaldeko Geoparkearen bihotzean. Bigarren trekking-ak 10 kilometroko ibilbidea eta 500 metro inguruko desnibela eduki zuen. Gainera, geologiarekin zerikusia zuen proba berezi bat gaingitu behar izan zuten, Geoparkearen sorrera eta berezitasunei buruzko hiru galderaren erantzuna asmatu behar izan zuten. Horren ostean, bizikleta ganean itzuli ziren Debaraino, 37 kilometroko proba osatuz. Argazkiak eta sailkapenak: *barren.eus*

Anwar ElHassouni saltakaria txapelkunorde Euskadiko txapelketan

Mintxeta Atletismo Taldeko Anwar ElHassouni antxitxikariak 3.000 metroko lasterketan hartu zuten parte Euskadiko 38. Eskolarteko Kirol Jokoetan, eta bigarren postua lortu zuen infantiletan. El-Hassounik Gipuzkoako selekzioa ordezkatu zuen Getxon jokatu zuten txapelketan. Mintxetako beste hainbat atleta Gipuzkoako Atletismo Txapelketan lehiatu ziren. Horien emaitzak *barren.eus*-en.



Aroa Saezek irabazi zuen Antton Oñederraren Omenezko txirrindulari lasterketa


Kimuen eta haur mailetako txirrindulari gazteek parte hartu zuten, maiatzaren 25ean, Azkoitian jokatu zen Antton Oñederraren Omenezko II. txirrindulari lasterketan. Elgoibarko Lagun Taldeko txirrindulari gazteak maila bikainean aritu ziren eta podiumera igo ziren taldeko bi txirrindulari. Denboraldiko lehen garaipena lortu zuen Aroa Saezek, alebinetan. Saezek beste bi probetan ere zapaldu du podiuma denboraldian, birritan sailkatu baita hirugarren postuan; Mendaron, martxoan jokatu zuten lasterketan lehenik, eta Bergaran maiatzaren hasieran jokatu zuten proban gero. Infantil mutilen mailan lehiatu zen Eneko Ortegak bigarren postua lortu zuen Azkoitian, Bergarako lasterketan lortu zuen postu berbera, hain justu ere.

Lau Nazioen eskubaloi txapelketa, asteburuan

IMH Kiroldegian jokatuko dute, zapatuan eta domekan, Emakumezkoen Lau Nazioen Eskubaloi Txapelketa. Euskadiko, Galiziako, Valentziako eta Kataluniako selekzioek hartuko dute parte. Lehen finalerdian Kataluniak Galiziaren aurka jokatuko du, ekainaren 1ean, 17:30ean. Bigarrenengo kanporaketan Euskadik Valentzia izango du aurkari, 19:30ean. Finala domekan jokatuko da, 10:30ean.

Mikel Cornejok irabazi du Trinitateetako danborrada iragartzeko kartel lehiaketa

A tabal elkarteak Trinitateetako danborrada iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du aurten ere, eta Mikel Cornejo elgoibartarrak irabazi du. 300 euroko saria jasoko du. 13 lan aurkeztu dituzte aurtengo lehiaketarako, iaz baino zazpi gehiago. Andrea Arriolak, Gemma Agirregomezkortak, Gemma Monrealek eta Emilia Nogalesek osatu dute epaimahaia. Antolatzaileek parte hartzaileei eta epaimahaikideei eskerrak eman dizkiete. Aurten Trinitate jaiak ekaineko hirugarren asteburuan izango dira, eta danborrada zehazki hilaren 15ean izango da, 23:00etan. Saria egunean bertan banatuko dute, 23:30 aldera.



Lagun artean eman zion amaiera Taupadak 40. urteurrenari



Taupadako kideak fantasiatzko pertsonaien azaletan sartu ziren zapatu eguerdian, eta amets egin zuten. Amets handiak eta txikiak irudikatu zituzten xaboi burbuilekin, eta ilusioa zabaldu zuten herriko kaleetan. Lau geldione egin zituzten herrian, euren antzezlan eskaintzeko: Kalegoen plazan izan zen lehenengoa, Kalebarren plazan bigarrena, King-Kong-en geratu ziren ondoren, eta azkenik, Maalan. Han bertan zeukaten bazkaria ondoren. 130 lagun inguru batu ziren bazkaritarako, eta bazkalostean, antzerkia eta musika izan ziren protagonista. Lagunez inguratuta eman zion Taupadak amaiera 40. urteurrenari. Hunkituta eta pozik ageri ziren aktoreak, Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañaga, bereziki.

Samana taldeak kontzertua emango du egunean Kultur Etxeko Sotoan

Sinuösek antolatuta, Samana talde britaniarrak kontzertua emango du egunean Elgoibarko Kultur Etxeko Sotoan, 22:00etatik aurrera. Galeseko Rebecca Rose Harris eta Franklin Mockett-ek osatzen dute Samana. Sanskrito hizkuntzako hitza da Samana, eta askatasunarekin dauka zerikusia. Zehazki, betebeharrak albo batera utzi, eta bere bizi-zako bidea naturari lotuta egiten duen pertsona esan nahi du. Filosofia hori oinarri hartuta kaleratu dute *Ascension* izeneko estreinako diskoa. Euskal Herrian biran dabilta, eta hiriburu handien artean, Kultur Etxeko sotoan egingo dute geldialdia.

Dantza moderno jaialdia, gaur, Mendaron

80 bat neska-mutil batuko dira gaur gauean Mendaroko frontoian, dantza modernoan kurtso amaierako jaialdian. Naia Aizpurua, Lucia Dieguez, Jone Barandika eta Ana Alberdi irakasleekin urtean zehar ikasitakoaren erakustaldia egingo dute ikasleek. 21:30ean hasiko da dantzaldia.





Jone Olaizola



Belarri ertzerara esan. Belarri ona izan. Belarri gogorra izan. Belarria eman. Belarria zorroztu. Belarriak apal. Belarriak berotu. Belarriak gorritu. Belarriluze. Belarri-motz. Belarrondoko. Buru belarri jarri.

Belarriprest (Euskaltzaindiak laster onartuko du hitz hau). Zein aberatsa den euskara! Egunotan zabaldu da EGA azterketarik ez dela gehiago egingo; eta, bat-bateko nostalgia atakeak eman dit, gogoratu ditudalako atariko probetan ateratzen ziren zenbait esaera jator. Izan ere, ikasi genuen "utikan!" ez dela musika-talde baten izena soilik, edota "kilkolo" ez direla pailazoak, "akitu" ez dela altzari-denda bat,

eta "jai duzu!" ez dela olgeta. Pentsatzen dut euskara zuzen hutsetik haratago zegoela EGAko azterketa. Azken urteotan, proba bera gogor samar kondenatu dute, oso zaila zela egotzita. Baina, azterketariak izandako emaitza txarrak bat datoz beste ebaluazio batzuekin; izan ere, gazteek euskaraz duten komunikazio gaitasuna nahi baino kaskarragoa da. Eta ez diet erru osoa gazteei botatzen. Hala ere, aldaketa baten atariko proba honetan gaudela, balioetsi beharrekoa euskararen erabilera da nire ustez. Azterketak azterketa, eta agiriak agiri, nor bere arloan euskara txukunean aritzen dena "gai da", eta agiri panpoxo bat eduki arren euskaraz egiten ez duena, agian "guai" izango da agiria duelako, baina "ez gai" da.

*"Azterketak azterketa, eta agiriak agiri,
nor bere arloan euskara txukunean aritzen dena 'gai da'"*

Eire Vila



LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo asteburuetan. Esperientzia. Berehala hasteko prest.
☎ 631 288 512

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 531 623

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 116 534

Adinekoak zainduko nituzke, arratsaldetan. Esperientzia. ☎ 685 185 462

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 650 152 866

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez edo gauetz. ☎ 690 134 485

Arotz edo pintore lanetarako eta adinekoak zaintzeko prest nago. Arratsua eta fidatzekoa naiz.
☎ 617 773 202

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 612 422 256

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo orduka.
☎ 602 843 984

Orduka egingo nuke lan. Umeak zaintzen esperientzia daukat.
☎ 612 202 116

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzen esperientzia daukat.
☎ 617 810 065

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia daukat.
☎ 632 875 808

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 612 250 984

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka, zein asteburuetan.
☎ 678 112 785

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. Berehala hasteko prest.
☎ 644 558 390

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka.
☎ 612 296 098

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Euskalduna naiz.
☎ 629 490 986

Eskaintzak
Elgoibarko ileapaindegi batean lanaldi erdiz lan egiteko pertsona behar da.
☎ 943 246 225 (Nerea)

Pertsona euskalduna behar da arratsaldez umea zaintzeko.
☎ 678 000 819

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. Interesatuak curriculumak bidali mesedez: *buruagaitzen@gmail.com*

ETXEBIZITZAK.....
Estudioa hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Arduratsua naiz. Erreferentziak ditut.
☎ 666 197 831

Etxea alokatzen dut Donostian, Antigua auzoan. Abuztuaren 18tik irailaren 15era. Hondartzatik 5 minutura. 55m², berriztatuta, igogailuarekin. 2 logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldea. WIFI konexioarekin. Hamabostaldia: 1600€ ☎ 699 02 77 34

Estudioa alokatzen dut Elgoibarren. Altzariek. ☎ 669 665 252

LOKALAK.....
Lokala salgai. Olaso 6, 664 pabilioia. 132,84 m² ditu, 16,5 x 8 metroko azalerarekin. 7 metroko altuera du, bulego bat eta komuna.
☎ 943 743 628

KINTOAK.....
1947an jaiotako kinto bazkaria, ekainaren 8an 13:30ean argazkia, Kalegoen Plazan. Jarraian, Ibai Ondo tabernan luntxa. 14:45ean bazkaria Sigma jatetxean. 65 euro sartu behar dira, kontu honetan, ekainaren 1erako: 3035 0007 24 007 1063126 (Laboral Kutxa).
☎ 647 647 270 (Camilo Otero) 616 048 946 (Pedro Bergara).

Aurten 50 urte beteko dituzten elgoibar tarrek ospakizun berezia egingo dute urriaren 26an Eibarren. Antolatzaileek egun hori gordetzeko eskatu diete 1969an jaiotakoei. Xehetasunak aurre-rago zehaztuko dituzte.

1964ko kintoek bazkaria egingo dute ekainaren 29an Sigma jatetxean. 12:30ean batuko dira udalexe azpian, 12:45ean argazkia atera eta 13:00etan luntxa, Tantan. 65 euro ordaindu behar dira, ekainaren 14rako: ES17 3035 0007 24 0071137320 (Laboral Kutxa).



Antonio Romera Ramos

2019ko maiatzaren 29an hil zen, 71 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoaldea Euzko Administrazioaren Erakunde Nazionala



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure etxepeko bizilagun bati ura sartzen zaio leihoen egurrezko markotik. Arazoa ez da, baina, fatxadako ertzena, baizik eta egurrarena berarena, egoera txarrean dagoelako. Jakin nahi nuke nori dagokion konponketa hori ordaintzea, etxejabeari berari ala komunitate osoari.

Ura egurrezko markotik sartzen bada, eta ez fatxadako ertzetatik, arazoa etxe jabearena da, berak ez duelako mantenu lan egokirik egin. Beraz, ez dagokio komunitateari hori konpondu eta ordaintzea. Aldiz, egurraren egoera txarra etxebizitzaren zahartzearen ondorio bada, komunitateari dagokio konpontzea, leihoak aldatu behar balira ere.

GOMENDIOA: Etxejabe batek leihoak aldatu eta berriak jartzeagatik ordaindu badu, eta handik denbora batera ura sartzen hasten bada leiho horiek eta fatxada ez daudelako ondo lotuta, etxejabe horri berari dagokio konponketa ordaintzea. Hau da, etxejabeak bermatu behar du inpermeabilitatea, eta ez komunitateak, bera izan delako leihoak aldatu dituen.



Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Mikel**, atzo 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Leire**, asteartean urte bat beteko duzulako. Etxekoen eta, bereziki, Jonen partez.



Zorionak, **Lan-der!** Gaur 5 urte! Ondo-ondo pasa eguna, maixial! Patxo pila bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Maia-len**, bihar 10 urte beteko dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, Mikelen partez.



Zorionak, **Ihintza**, gaur 7 urte bete dituzulako. Patxo handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Jon**, bihar 9 urte beteko dituzu-eta! Askokozatu zure egunean, eta patxo handi bat etxeko guztion partez.



Eskerrik asko, **Ana Maria Gutierrez, Ana Marin** eta **Ines Ramirez**, 74koen kinto eguna antolatzeagatik. Oso ondo pasatu genuen.



Zorionak, **Mikel** eta **June**. Lehengusu Irati, Uxue, Ane eta Danelen partez.



Zorionak, **bikote**, gaur zuen ezkontza eguna delako. Izan zoriontsu! Etxekoen, eta bereziki, Garazi, Olatz eta Unai iloben partez.



Zorionak, **Mar-txel!** 8 urte! Ondo pasatu eguna!

IKASBAI AKADEMIA IKASGO ACADEMY Basarte 13, behea · Elgoibar akademiaelgoibar@gmail.com	AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK 2019-2020 667 261 248 (Leire)
	<ul style="list-style-type: none"> ● INGELES ERREFORTZUA ● CAMBRIDGE AZTERKETAK ● TALDE TXIKIAK ● LH ETA DBH ● GAI GUZTIAK ● EUSKARA ERREFORTZUAK

RPS 18312



40.
urteurrena
UZURI
optika audio

ELGOIBAR - DEBA

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

➤ **Ekaineko eskaintza:**

%15eko beherapena eguzkitako betaurrekoetan

(beste deskontuekin ez metagarria)



➤ **Ekaineko zozketa:**

2 Oakley bisera



31 BARIXAKUA

18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pai-lazoak, Mendaron, ikastolako jolastokian.

21:30 Dantza modernoan jaialdia, Mendaroko frontoian.

1 ZAPATUA

Ikastolaren eguna

10:30 Kalejira, Kalegoen plazatik Ikastolara.

Ondoren, Altxorraren bila, herri kirolak, futbol partidak.

Egunean zehar, Tonbola, puzgarriak, aurpegia margotzea, guraso eta irakasten arteko jolasak...

14:00 Bazkaria.

15:30 Sari banaketa (marrazketa, mendizaletasuna, errifak).

Jarraian, mus txapelketa eta dantza.

12:00 Lau Nazioen Eskubaloi Txapelketa jokatu duen taldeei harrera, udaletxean.

17:30 Lau Nazioen Eskubaloi Txapelketa partida: Katalunia-Galizia. IMH kiroldegian.

19:30 Lau Nazioen Eskubaloi Txapelketa partida: Euskadi-Valentzia. IMH kiroldegian.

13:30 Inklusioaren aldeko egitasmoa. Pizza zatia eta freskagarria, Salento tabernan.

21:30 Inklusioaren aldeko kontzertua: Mugi panderoa, J.M. Atlantida eta The Crokets (Beatles taldearen tributoa). Elgoibarko Gaztetxean. Salentok eta Gazte Asanbladak antolatuta.

2 DOMEKA

10:30 Lau Nazioen Eskubaloi Txapelketa partida: 3. eta 4. postuak erabakitzekeo partida. IMH kiroldegian.

12:30 Lau Nazioen Eskubaloi Txapelketa partida: Finala. IMH kiroldegian.

3 ASTELEHENA

19:00 Pentsio duinen aldeko elkarretartzea. Kalegoen plazan.

19:00 Ameikutz musika eskolako bateria-jole bakarlarieen saioa. San Agustin kulturgunean.

19:30 Talde instrumentalen kontzertua. Inazio Bereziartua musika eskolako auditoriumean.

5 EGUAZTENA

17:00 Solasaldi-talerra. *Pausoz pauso, seguru*. Segurtasunez ibiltzeko aholkuak. 64 urtetik gorakoentzat, Jubilatuen Biltokian. Doan. Partaideei kanpainako oparibat emango diete.

6 EGUENA

22:00 Kontzertua: Sinuösek antolatuta, Samana taldearen emanaldia. Kultur Etxeko sotoan.

7 BARIXAKUA

19:00 Inazio Bereziartuako dantza ikasleen kurtso bukaerako jaialdia, Kalegoen plazan.

21:30 Koplaldia: Elgoibarko Kopla Txapelketa. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Bokatokian. Euria egiten badu, Gaztetxean.

21:30 Zine foruma: *La chica danesa*. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa. Hai-zeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldigelan.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
31 BARIXAKUA	1 ZAPATUA	2 DOMEKA	3 ASTELEHENA	4 MARTITZENA	5 EGUAZTENA	6 EGUENA	7 BARIXAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

Elgoibarko I. Koplaldia

Eli Pagola - Aitor Mendiluze
Miren Artetxe - Onintza Enbeita
Manex Agirre - Mainer Arregi
Andoni Egaña - Odei Barroso
Aitor Bizkarra - Uxue Alberdi

Musikariak:

Ander Mujika - Jon Gurrutxaga
Iban Urizar- Patxi Zabaleta

ekainak 7
21:30
bolatokian

OHARRA: Eserlekua gordetzeko gonbidapenak
ekainaren 3tik aurrera har daitezke Elgoibarko Izarran.



 DANOBAT

ELGOIBAR UBITARTE GAIN



Informazio hau bidetara bain duteko erabili formak. Jakinarazteko konertziaz arduratzen gara.



AZKEN ETXEBIZITZAK! Ez galdu aukera hau

GUZTIAK BARNE



ETXEBIZITZA



ARMAIRUAK



SUKALDEA



PERTSONALIZAZIOA

ERAIKUNTZAN

943 316 586

 **sukia**

Zure etxean zaude Estás en tu casa

www.sukia.com

 **grupo
LAZKANO**

www.grupolazkano.com